

Haziak ereiten


maiatzak 4

materiala


- Kristalezko pote bat edo yogur pote bat
- Kotoia
- Lentejak, babak edo garbantzuak
- Ura

azalpena

Lehenengo pote erdia kotoiz beteko dugu eta ondoren ur piska bat botako diogu kotoiari, kotoi zati osoa bustita geratu behar da. Gero, lenteja (edo aukeratu dugun lekalea) batzuk kotoiaren gainean jarriko ditugu. Azkenik, potea leku argitsu baten utziko dugu.



2 edo 3 egun pasa ondoren, hazten hasiko dira. Gogoratu noizean behin ur piska bat bota behar diegula, ez lehortzeko eta hazten jarraitzeko.



Bidali zuen argazki edo bideoak 688 725 738 zenbakira edo ludoteka@soraluze.eus helbidera